



Ángel Toñak Islandian emandako hitzaldia (2016-04-28)

Eskerrik asko Michael Green. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke Michael Porter-i eta Islandiako Gobernuari, ekitaldi honetan gure esperientziak azaltzeko aukera eman digutelako.

Euskadi lurralde txikia da: 7.230 km² inguru eta bi milioi eta ehun mila biztanle baino zertxobait gehiago dauzka. 2015ean, gure barne-produktu gordina 68.700 miloi eurokoa izan zen. Langabezia-tasa, berriz, % 14,5ekoa.

Gure hiru lurralde historikoetan foru-erregimenari eta ekonomia-itunari eutsi diegu, eta, horiei esker, hiru lurraldeetako bakoitzak bere ogasun propioa dauka. Nafarroan ere badirauren eskubide historiko horrek zerga-autonomia ematen digu, eta, horrez gain, aukera ematen digu autogobernua baliabide gehiagoz gauzatzeko.

Baina, berez, formula horrek erronkak ere sortzen ditu. Baldintza batzuk ezarri behar ditugu, gure ekonomia aberastasuna sortzeko gai izan dadin, gero aberastasun hori banatu ahal izateko. Gure buruaren menpe gaude, onerako nahiz txarrerako.

Gizarte- eta ekonomia-arloan dauzkagun erronkak gure inguruko herrialde eta eskualdeetan daudenen antzekoak dira. Gure biztanleria zahartzen ari da, jaiotza-tasa baxuak dauzkagu, eta gure enpresak borrokan ari dira, dakizuen bezala geroz eta globalagoa den merkatu batean lehiakorrak izateko.

Horixe da gure testuingurua, eta horren berri eman nahi nizuen, lortu dugun gizarte-aurrerapena azaldu baino lehen. Izan ere, gure aurrerapena Espainiako beste eskualde batzuetakoa baino handiagoa da, bai; baina, hala ere, ez dago Europako beste herrialde batzuen mailan, eta horixe da guk nahi duguna.

Europako Eskualdeetako Gizarte Aurrerapeneko Indizearen arabera, 272 eskualderako kalkulatu bera, gure indexa 69.65ekoa da.

Azterketa horretan, neurtzeko zailak diren gizarte-aurrerapeneko elementuak daude, batez ere Europako eskualdeena bezalako testuinguru hain bereizi eta alderagarrian, baina, hala ere, azterketa abiapuntutzat har dezakegu, gizarte-aurrerapena nahi dugun mailan lortu ote dugun aztertzeko.



Euskadin gizarte-politiken alde egin den apustuak azal dezake, beharbada, gure posizioa. Apustu garbia egin baitugu eta emaitza onak jasotzen ari baikara. Politika horiek herritarrari gehien eragiten dietenak direla ulertzen badugu, horren barruan sartuta osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-kohesioaren aldeko apustuak, ondorioa honako hau da: gure gobernuak 4tik 3 bideratzen ditu gizarte-beharrizanak betetzera. Eta apustu ideologiko horretaz harro gaude.

Lehen azaldu dizuet gure erronkak demografikoak ere badirela. Ikerketen arabera, gaurtik 2020ra biztanleak galduko ditugu, eta, 2020an, 65 urtetik gorako biztanleria izango da biztanle guztien artean ia laurden bat. Adin-tarte horretako pertsonak geroz eta gehiago izango dira.

Horrenbestez, gure gobernuak azken urteetan egin duen apusturik handienetakoa Euskadirako Zahartze Aktiboaren Estrategia 2015-2020 delakoa da. Estrategia horren helburuen artean, batetik, zahartze aktiboa sustatzea dago, eta, bestetik, guztiok zahartzen garela eta, beraz, horretarako prestatu behar dugula sartzea jendearen kontzientzian.

Bide horretan, gainera, aldaketa demografikoari buruzko itun europarrera batu gara, eta udalerrri lagunkoien sare indartsua daukagu. Sare horrek, hain zuzen ere, OMEren babesarekin, arlo honetako abangoardian kokatzen du Euskadi, bera baita udalerrri lagunkoi gehien duen lurraldea.

Gure ustez, biztanleria apurka-apurka zahartzeak beste beharrizan batzuk ekarriko ditu, baina baita beste aukera batzuk ere. Erronkarik handiena egoerari aurrea hartzea da. Eta horretarako lanean ari gara.

Baina argi dago gizartearen eta osasunaren ikuspegitik ere beharrizan berriak sortzen ari direla. Euskadin, esaterako, telelaguntza-zerbitzua ezarri dugu, pultsadore baten bidez. Hala, pertsona nagusiek edo ezintasunen bat dutenek profesional bat izan dezakete beren esku, urrutitik klik bat egite hutsaz.

Desafio demografikoari dagokionez, beste ohar bat. Erakunde arteko estrategia egonkor eta irismen luzekoa lantzen ari gara. Hala, haurren eta familien aldeko herrialde-itun baten bidez, euskal erakundeek apustuak egiteko eta jaiotza-tasa



indartu eta familia eta lana uztartzen lagunduko duten politikak garatzeko aukera izatea lortu nahi da, erakundeon izaera gorabehera. Hau da, familien beharriaz erantzunoko dieten politikak sustatu nahi ditugu, gazte euskaldunek nahi adina ume izan ditzaten, eta ez soilik eduki ahal dituztenak.

Baina gure gizarte-politikak askoz harago doaz. Eta horren adibide da gure gizarte-zerbitzuen sistema. Sistema hori, izan ere, arreta-sare publiko antolatua da, erantzukizun publikokoa, eta pertsona, familia eta talde guztien gizarteratzearen, autonomiaren eta gizarte-ongizatearen alde egitea du xede. Bada, xede hori sustapen-, aurreikuspen-, babes- eta laguntza-eginkizunak betez gauzatu nahi du, funtsean pertsonen eta harremanen buruzkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Eta gainerako erakunde publikoekin (besteak beste, udal eta aldundiekin) lankidetzan garatzen da.

Halaber, azpimarratzeko modukoak dira gizarte-kohesioko gure sistemak. Pobreziaren aurka egiten dugun borroka. Gizarte aurreratu batek ez baitu ezertarako balio aurrerapen hori guztiongana iristen ez bada.

Aurreko mendeko 80ko hamarkadaren amaieran, Euskadin, 70eko amaierako eta 80ko hasierako industria-birmoldaketaren ondorioak izan ziren, hots, langabezia-tasa altuak, eskastasuna eta pobrezia.

Eusko Jaurlaritzak azterketa bat egin zuen orduan, egoeraren berri emateko. Horren harira, Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat egin zuen, pobreziaren gaineko programa zehatz bat abiarazteko. Hala, 1989. urtearen hasieran, Pobreziaren aurka Borrokatzeko Plan Integrala jarri zen martxan. 1990ean, Eusko Legebiltzarrak gutxieneko errenten lehenengo lege autonomikoa onartu zuen Espainian.

Lege hori onartzeko, adostasun politiko handia egon zen; bestela, ezinezkoa izango zen lege-testu batean islatzea.

Familiaren gutxieneko diru-sarrerari esker, ondoren erreforma-neurriak hartuz zabaldu zen bide bat abiatu zen, eta, orokorrean, beharriaz-egoerei erantzuna emateko hobekuntzak ezarri ziren. Ibilbide horren gailena diru-sarrerak bermatzeko prestazio publikoen egungo sistema da, eta horren oinarri dira Diru-



sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) enpleguaren hobari-sistemarekin, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).

Espainiako Estatu osoan gizarte-politikan inbertitzen den zenbateko osoaren % 40 Euskadik jartzen du, biztanleriaren % 6 baino ez garen arren.

Hertsiki soziala den ikuspegitik erreparatuz, egia da diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko sistemak ezin izan diela guztiz aurre egin azken krisiaren erasoari. Pobrezia errearen tasa 2008tik, bere mailarik baxuena edukitzetik, igo da. Baina oraindik ere oso urrun dago 1996an zegoenarekin alderatuta, eman den altuena, krisi garaian orduan ere.

Krisia dugun arren, eta langabezia-tasa Europako herrialde sozialki garatuagoetakoa baino altuagoa den arren, Euskadi 2014an herrialde horietatik hurbil egon zen, pobrezia larriko bizipenekin modu zuzenenean lotutako adierazleei dagokienez; besteak beste, elikadura-arazoaren eraginari eta atzeratutako ordainketei eta egin ez diren ordainketei dagokienez. Adierazle horiekin, Euskadiko zenbatekoak nabarmen urruntzen dira Europako batez bestekoetatik.

Azpimarratu beharra dago, gainera, Euskadin diru-sarrerak bermatzeko politika ez zela diseinatu epe laburrean gutxieneko baliabide batzuk bermatu ahal izateko soilik. Programak teknikoki diseinatu ziren, epe luzera biztanleriaren egonkortasun ekonomikoa bermatu ahal izateko. Eta alderdi horretan izan du, hain zuzen ere, arrakasta handiena. Bere garaian lortutako adostasun politikoak, urte horietako egoera zehatza ez ezik, sistema iraunkor bat bermatu nahi zuen, euskal politikaren ardatz estrategikoen eta pertsonetikiko konpromisoaren parte izango zena.

Datuak dira baieztapen horren adibiderik onena. Ezohiko gastuak ordaintzeko baliabiderik ez duten etxeetako pertsonen proportzioa, esaterako, % 22,5ekoa da Euskadin. Adierazle bera % 36koa da EB-28an. Europar Batasunean, Suedia bakarrik dago EAEn azpitik adierazle honi dagokionez.



Bistakoa da gure prestazio-sistemak Euskadiko egungo biztanleek etorkizun hobea izan dezaten lagundu duela eta halako jarduerarik gabe ez litzatekeela hori hala izango. 80ko hamarkadaren amaieran, krisi gogorra gailentzen zen une batean, Euskadin gizarte-gastuan oinarritutako politika berri bat sustatzea erabaki zen, eta arrisku hori hartu zuten pertsonen gizarte-ondarea da, hain zuzen ere, egungo egoera. Apustu hura da gaur egun familia askoren aterpe bihurtu dena, bestela marjinalitate hutsean egongo bailirateke, Espainiako Estatuko beste leku batzuetan gertatzen den bezala.

Edonola ere, pertsonak jomuga bihurtzea izan da arrakastaren oinarria. Pertsonentzat gobernatzen dugu. Pertsonen premiei erantzuteko. Gaurko eta biharko premiei. Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-kohesioaren aldeko apustua da.

Emaitzak ikusita harro, eta egiteke daukagun guztia gogoan, sendotasun osoz ziurtatu diezazueket gure osasuna, gure hezkuntza eta gure gizarte-zerbitzuak gaur egun bikainak direla. Eta, hemen dagoen norbaitek gure eredia beste nonbait aplikatu daitekeen galdetzen badio bere buruari, erantzuna baiezkoa da. Baina, horretarako, beharrezkoa da gizarte-arloa sustatuko duen apustu politikoa egitea eta eskura dauden baliabideak zorrotasunez kudeatzea, herrialdeak aurrera egiten, lehiakor izaten eta aberastasuna sortzen jarrai dezan.

Eskerrik asko!